# Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2000ko apirilaren 19a ● 189. zka.





# Denok batera Aberri egunean

Iturririk iturri: Joseba Lopez de Armentia • Iritzia: Mirari Altube • Kirolak: Mirian Santateresa

# LAN-IRTEERA UGARI DITUEN PROIEKTUA

## HURRERA ZAITEZ!



Gure **Ikastoletan Batxilergoko** aukera guztiak eta **Heziketa-Zikloetan** eskaintza zabala:

Batxilergo Teknologikoa, **Eslola Politeknikoak** ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa.

BILERA INFORMATIBOA: Maiatzak 4 (Arizmendiko egoitzan)

943 79 31 32

Arizmendi

Larrin Plaza,1
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)

# Aberri eguna ospatzeko ohiturarik baduzu? Badakizu aurten Atxabaltan ospatuko dugula?



**Arantxa Antxia**

Oporretan egoten naizenez ez naiz aberri egunera joan izan.
Ondo pentsatzen zait herrian bertan antolatzea, aspaldiko partez hemen egongo naiz, gainera.



**Isidora Egia**

Bai, ospatzen dut. Ikurrina jarri izan dugu balkoian urtero.
Oso ideia ona da herrian ospatzea, ordua ere bazela uste dut.



**German Gonzalez**

Kanpoan egon izan gara beti sasoi honetan, eta beraz, ez dugu ospatu izan. Hemen herrian ospatzea oso ondo iruditzen zait.



**Fidel Iturbe**

Normalean ospatu izan dut.
Ondo dago herrian antolatzea. Bertan geratzen den jendearentzako egokia izan daiteke.

## ESKUTITZA

### IZAR BERRI BAT PIZTUTZERA GOAZ EUSKAL HERRIKO ZERU GAINEAN

Gauero gauero, Kanbon, artzainak bordatik atera eta ortzean izarrik denetz so egiten du, zerua izarrez gainezka dagoenean larrean etzan eta gora begiratzeko ohitura baitauka. Urteak eta urteak daramatza ohitura berari eutsiz, urtea joan eta urtea etorri, gaua joan eta gaua etorri. Milaka izar ditu jadanik ikusiak , izar gazteak, distiratsuak, sekula itzuliko ez diren izarrak. Jadanik artzainaren parte bilakatu diren izarrak, bere bizitzaren zati; eta harro dago izarren adoreaz, gau beltzenei aurre egiten ikusi baititu, trumoi eta tximista gosetien atzaparretatik gailentzen. Ikusi ditu triste, ikusi ditu alai. Ikusi ditu egunetik egunera sendotzen, distiratsuago bihurtzen. Ziur dago zerua sortu aurretik izarrik bazela eta haiek ehun zutela hari mehe eta ilunez bere begien aurrean gauero pausatzen den eraikin beltza.

Apirilaren 20an, ohi bezala, artzaina larrera atera eta bertan etzan egingo da. Begirada gora zuzenduta lo geratuko da. Izarrekin dago amets, izar argi eta distiranteekin.

Halako batean, izar denak elkarlotu egin dira eta izar berri bat piztu dute zeru gainean, gaua egun bihurtu duen izar eskerga. Begiak ireki ditu asaldatuta eta ohartu da izar handi batek, sekula ikusi duen ederrenak, zerua estaltzen duela, ohartu da ametsa egia bihurtu dela.

Eta izarraren barrenean bi sorburu, bakar batean urtu diren bi bihotz ikusi dituela iruditu zaion unean, eztanda argitsu bat gertatu da eta izar hautsak barreiatu dira nonahi, ikutzen zuten guztia argitasun bihurtuz.

*Jarrai eta Gazteriak taldeak*

### MAIATZAREN 11 ARTE

Aretxagazetak jai egun batzuk hartuko ditu datozen egunotan. Hori dela eta, datorren maiatzaren 11n aterako dugu hurrengo alea. Bitartean ondo ibili eta ordura arte.

*Aretxagazeta*

**Aretxagazeta**

189. zenbakia
2000ko apirilaren 19a.

**Durana 11, 151 postakutxatila**
**Aretxabaleta**
**Tfnoa: 943 79 86 21**
**Faxa: 943 77 18 54**
**e-mail: aretxagazeta@saretxo.es.**
**Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkartea.**

**Zuzendaria:** Edorta Mendieta.
**Erredakzio-kontseilua:**
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy.
**Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:**
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
**Kolaboratzaileak:**
Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.
**Banatzaileak:**
Aitor Urrutia, Nerea Lete, Aiora Filarmendi.
**Inprimategia:**
Eguzkigraf, Koop. Elk.

Topagunea

**Tirada:** 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
**Lege gordailua:** SS378 / 94.
**ISSN:** 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.
**Azala eta barruko argazkiak:** Aberri eguna 1932 liburutik hartuta.

**Erakunde hauen laguntzaz**

**Aretxabaletako Udala** **Gipuzkoako Foru Aldundia** **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**



## LIBURUTEGIAN ORDENAGAILUA JARRIKO DA

Aretxabaletako liburutegian ordenagailua jarteko lanak hasita daude. Ordenagailu hau liburutegiko erabiltzaile guztien eskura egongo da eta liburutegian dauden liburuen inguruko barriak emango ditu. Bi urteko lanaren emaitza izango da, Joseba eta Andoni Lopez de Armentiak 7.000 libururi buruzko datuak sartu dituzte eta bi urte hauetan. “Momentuz maileguan eraman daitezkeenen datuak sartu baditugu ere, liburu guztien inguruko informazioa egongo da laster” dio Josebak.



*Balore ekologiko haundiko txoriak ei daude Hiruatxen*

# Hiruatxen dauden hegaztiak babestu gura ditu udalak

Hiruatxen bizi diren balore ekologiko haundiko hegaztiak babestea onartu zuen udalak hilaren 13an egindako plenoan. Txorien kabiak dauden pinudietako jabeek, Oñatiarrak eurak, pinuak bota gura dituztela jakinda, udalak lur sail horien truke beste batzuk ematea erabaki zuen.

“Badirudi txoriak Pirineotatik Picos de Europaruntz pasaran atseden lekua dutela gure mendia eta hori babestea nahiko genuke” dio Xabier Etxebarrieta zinegotziak. Hegaztiok babesteko, momentuz zein txori mota diren ez esatea erabaki dute diputazioko ehiza eta arrantza sailekoak.

## ELGEAKO ZENTRAL EOLIKOAREN AURKAKO MANIFESTAZIOA

Domekan egin zen Elgeako zentral eolikoaren aurkako manifestazioa. Eskoriatzatik irten eta Aretxabaletako plazaraino etorri zen hogeiko taldetxo bat. Ez da protesta ekintza egiten den lehenengo aldia, Elgean, ordea, gero eta haize errota gehiago dago, aste bukaera honetan hain zuzen hamasei ikus zitezkeen. Eskoriatzako udalak ere bere lurretan haize errotak jarteko baimena eman du azkenean, hori bai hainbat baldintza jarrita.



FOTO Urkiola
ARGAZKIAK
Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20
ARETXABALETA
Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak
Albunak
Argazki kama-

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia
IMANOL
JANARI DENDA
Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

Ludotekarako pertsona bat hartu nahi da.
Curriculum-a Loramendi euskara elkartera bidali, Durana, 11 zenbakira maiatzaren 5a baino lehen.

Okindegia - Gozotegia
Aretxabaleta
Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1- ☎ 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

Mobiliario
ARENAZA
. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA
Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

MAPFRE
Aseguroak
Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76



*Aurten ere Izurietara gurutz bidea egingo da eguakotx santu goizean*

# Erlijiozko ospakizunez betetako Aste Santua

**Eguazten Santua**

| | |
|---|---|
| Arratsaldeko 7,30etan | Penintentzi elkarteko ospakizuna. |

**Eguen Santua**

| | |
|---|---|
| Goizeko 10,30etatik 12etara | Penitentziaren sakramentua bakarka. |
| Arratsaldeko 5,30etan | Jaunaren azken afariko eukaristia -Monastegian- |
| Arratsaldeko 7etan | Eukaristia nagusia -Parrokian- |
| Gaueko 9etan | Otoitza -Monastegian- |

**Eguakotx Santua**

| | |
|---|---|
| Goizeko 9etan | Gorespenak -Monastegian- |
| Goizeko 11etan | Gurutz bidea -Parrokiatik Izurietara- |
| Arratsaldeko 4retan | Jaunaren nekaldiko ospakizuna -Monastegian- |
| Arratsaldeko 5,30etan | Jaunaren nekaldiko ospakizuna -Parrokian- |

**Zapatu Santua**

| | |
|---|---|
| Goizeko 9etan | Gorespenak -Monastegian- |
| Gaueko 9etan | Pazko Gaubeila eta bataioak -Parrokian- |
| Gaueko 10etan | Pazko Gaubeila -Monastegian- |

**Pazko Domeka**

Eukaristia guztiak igandeetako orduetan.

**Oharra:** Parrokiako ospakizunak bi hizkuntzetan izango dira eta Monastegikoak euskaraz.

**BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK EGITEKO HITZARMENA** Babes ofizialeko etxebizitzak egiteko Aretxabaletako udala eta Eusko Jaurlaritzaren artean hitzarmena sinatzea onartu zen hilaren 13an egindako ez ohiko plenoan. Udalak lurra utziko lioke Eusko Jaurlaritzari eta honek 14 etxebizitza egingo lituzke Bedarretan. Horretarako, arau subsidiarioak aldatu eta Bedarretako lurzoruak etxebizitza erabilerarako izendatu behar dira. Maiatzaren 2an, Foru Aldundian arau subsidiariook inolako arazo barik onartzea espero da.

**DURANA 13KO ETXEBIZITZA EGOKITZEKO HITZARMENA** Durana kaleko 13. zenbakiko etxebizitza Atzegirendako izatea aspaldi onartu zen. Bertan, ordea, bi jabek etxebizitzak dituzte eta horietako bat, gainera, bertan bizi da. Bigarren jabe horrek udalaren esku utzi gura izan du etxebizitzaren konponketa lanei dagokien tramitazioa, beraz, udalak, lanek iraun bitartean, bizitzeko tokia eskainiko dio. Lanak bukatu ondoren Atzegirendako etxebizitzez gain bi partikularrenak ere egongo dira Durana 13an.

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA
J.J
Jose Jabier Irure
URA, GASA ETA KALEFAZIOA
Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

OSKAR GARAJEA
Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M
MEMESA
Industri hornidurak
Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA

**ZABORRETIK ATERATAKO JOSTAILUEN ERAKUSKETA** Deba Garaiko Mankomunitateak "zaborraren problematika aztertzen" kanpainaren barruan "Zaborretik ateratako jostailuak" erakusketa antolatuko du. Hau, zaborraren kanpaina honen barruan antolatutako bigarren ekintza da, lehenengoa martxoan egin baitzen "hondakinak gutxi eta birziklatzea" lemapean. Tartean jendearen begirada erakarri zuen "bitxien" erakusketa ere izan zen. Bigarren erakusketa hau, maiatzaren 2tik 7ra bitartean egongo da ikusgai herritarrentzat udaletxe zaharrean.






## Euskal Nortasun Agiria egiteko aukera egongo da aberri egunean

Datorren apirilaren 23an Aretxabaletan egingo den aberri egun bateratuan, euskal nortasun agiria egiteko aukera egongo da. Interesatuek argazki bat, karnet edo agiri baten (NAN, famili liburua, osakidetza…) fotokopia eta 1.000 pta. eraman beharko dituzte eta bertan beteko diote papera. Euskal nortasun agiri hau eskaera egin eta bi hilabete barru jasoko dute eskatutako guztiek.

Agiri honek momentuz ez du inolako baliorik, nahiz eta herri batzuetan Bermeon esaterako, botua ematen utzi. Etorkizunean ordea, baliodun agiria izatea espero da.

ENA egiteaz gain, euskal izendegi bateratua ere salgai jarriko da. Liburu horretan izen euskaldun guztiak biltzen dira.

**LAU ETA HIRU KILOTAKO LUZIOAK**

Pasa den zapatuan Ullibarri Ganboan sekula harrapatu diren luzio haundienak harrapatu zituen Iñaki Arbulok. Bi arrainok kainaz eta arrain gorriez lagunduta arrantzatu zituen. Batak 4 kilo eta laurden pisatzen zuen eta besteak hiru kilo eta laurden. Arratsalde osoa bertan pasatu ostean sari bikaina lortu zuen Iñakik eta orain laban jarrita jan behar ei ditu.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tel.: 943 77 13 57

LEIBAR
arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
ARETXABALETA


AZKARATE
AROZTEGIA
ARETXABALETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19
Ateak,
leihoak,
horma armairuak,
tarimak
eta
parketak


parkak,
trajeak, berokiak
eta alkondarak.
BUCCINO
50 urte
Atxabalta
jazten...
ASENSIO



## LORAMENDIKO ERREKA ERTZEKO PASEALEKUA ERROTABARRIRAINO LUZATUKO DA

Kiroletxetik hasi eta futbol zelairano doan erreka ertzeko pasealekua, Errotabarri ingururaino luzatuko da. Araba Ibilbideko azkenengo atarteetan 38, 40, 42 zenbakietan, hiriztatze lanak honez gero hasita daude. Pasealekua etxe ostean badoa ere, hori egiteko lurra altxatu beharra dagoenez, etxebizitza hauetako saneamendua begiratu eta inguruko espaloi eta bazterrak txukunduko dira. Futbol zelaitik Errotabarri ondoko egurrezko zubiraino joango den pasealekua udarako bukatu nahi da, eguraldi ona datorrenerako hain zuzen. Hiru-lau hilabete iraungo duten lanak bukatu ostean, Errotabarrin hasi eta Lausittara arteko pasealeku dotorea izango dugu herrian.



*Lau zentrutako heziketa zikloei buruzko informazio guztia jaso da liburuan*

# Lanbide Heziketa Debagoienan liburua kaleratu du Arizmendik

Prentsaurrekoa eskaini zuen Arizmendi kooperatibak pasa den astean, Lanbide Heziketa Debagoienan gida liburua aurkezteko. Heziketa zikloen inguruko kontzientziazio kanpaina burutu nahi dela esan zuen Joxerra Zubizarretak, Arizmendiko komunikazio arduradunak, oraindik nahiko ezezagunak izanik sarritan bigarren mailan uzten diren ikasketak dira eta. Gaur egun lana aurkitzeko orduan lanbide heziketako ikasleek ez dutela inolako arazorik izaten ere gaineratu zuen.

Almen ikastola, Eteo, Mondragon eskola politeknikoa eta San Viator ikastolek 2000-2001 ikasturterako eskaintzen dituzten heziketa zikloen berri ematen du gida liburuak. 11 familiatan banatutako 19 titulu eskaintzen dira, horietatik 15 goi mailakoak eta 4 erdi mailakoak. Aurten, gainera, 3 titulu berri eskainiko dira.

Gida liburu hau Euskal Herri mailan zabaldu gura dute eskola, gazte bulego eta liburutegien bitartez. Arizmendik, bestalde, lanbide heziketari buruzko informazioa emateko telefono zenbaki bat ere jarri du ikasle, guraso eta herritar guztien eskura 943 79 31 32.

## HIRUGARREN UMEA ETA BIRKIAK IZATEN DITUZTENENTZAKO DIRU LAGUNTZAK

Gero eta ume gutxiago jaio dela ikusita, bikoteek ume gehiago izan ditzaten diru laguntza txikiak ematea onartu du Espainiako gobernuak. Batetik, bi edo ume gehiago duten familiek, 75.000 pta.ko diru kopurua jasoko dute ume berri bat izatean. Bestetik, ume bat baino gehiago batera izaten dutenek, birkiak esaterako, diru laguntza ezberdinak izango dituzte. Birkidunek, lanbide arteko gutxienezko soldataren laukoitza jasoko lukete, hiru umedunek, zortzikoitza eta lau ume edo gehiago batera izaten dutenek hamabikoitza hartuko lukete.

Diru kantitateak aztertzen hasita guraso batek baino gehiagok ez direla beste munduko laguntzak esango du baina nonbaitetik hasi behar da eta ea poliki-poliki igoaz doazen.



DEBA GARAIA
Inmueble agentzia
Baserriak eta lur sailak salgai, Aramaio, Apotzaga, Arrasate, Elorrio, Bergara eta Soraluzen.
Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02

DEBA GARAIA
Inmueble agentzia
Transakzio, eragiketa fiskal eta judizialak egiteko tasazioak.
Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02

DEBA GARAIA
Inmueble agentzia
Eskaera haundia dela eta, saltzeko edo alokatzeko pisuak behar dira Aretxabaletan.
Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02

HAURRAK
Umeendako moda
Lezama merkatal zentrua, 15
ARETXABALETA

*Josebak, anaiarekin batera, zortzi urte daramatza liburutegian lanean. Horrez gain Aretxagazetan, liburuen barri ere ematen digu. Apirilaren 23an liburuaren eguna ospatzen dela eta berarengana jo dugu hurbilagotik ezagutzeko asmoz.*



# Joseba Lopez de Armentia

## Liburutegiko teknikaria

**▌Zein da zure lana liburutegian?**

▌ Denetik egitea tokatzen zait, liburuak erosi, sailkatu eta apaletan jarri, jendea hartu, diru laguntzak eskatu eta irakurketa gida bat egin ere bai. Eskoletako umeentzat ekintzak ere antolatzen ditugu, ipuin kontalariak, txotxongiloak, gidatutako bisitak… Apirilaren 2an, esaterako, haurren liburu eguna izan zenez Kurtzebarri eskolako 6 eta 7 urteko ikasleak etorri ziren liburutegia ezagutzera.

**▌Jende askok erabiltzen du liburutegia Aretxabaletan?**

▌ Baietz esango nuke. Gehienbat umeak etortzen dira, asko etxeko lanak egitera nahiz eta liburutegia ez izan horretarako. Helduak ere ez dira falta, irakurtzeko liburu bila edo kontsultak egitera etortzen dira hauek.

**▌Liburu berri asko sartzen da urtean zehar?**

▌ 1.000 inguru. Eusko Jaurlaritzatik euskaraz argitaratutako liburuen zerrenda bat bidaltzen digute, merkeago eskainiz. Horrez gain ere erosten dira eta neuk aukeratzen ditut.

**▌ Zenbat aldizkari ezberdin hartzen da?**

▌ Guztira 35. Aldizkari batzuk ere Eusko Jaurlaritzatik bidaltzen dizkigute, 22 hain zuzen. Hauez gain egunkariak ere badaude.

**▌Ba al dago gure liburutegian liburu zaharrik?**

▌Zaharrak bai baina ez museoko horietakoak. Liburutegia 1965ean zabaldu zen eta orduko liburuak oraindik badaude, baita zahartxoagoak ere, 1957 ingurukoak.

**▌Zenbat liburu daude?**

▌ 12.000 inguru izango dira. Aspaldian garbiketarik egin barik zegoen eta oiñau liburu zaharrenak kendu ditut. Ondo zeudenak Kurtzebarri eskolari eskaini nizkion eta beste batzuk Hego Ameriketara bidali nituen.

**▌ Zenbat bazkide daude momentu honetan?**

▌ 2.000 bat. Behin apuntatuz gero, norbera ez badator behintzat izena kentzeko esatera, betiko da, beraz, 2.000 izenetik gora dauzkagu. Liburutegia erabili, ordea, horietatik erdiak egingo du. Bestalde, oraindik norbait ez bada bazkide eta izateko gogoa badu, hona etorri eta norberaren datuak eman besterik ez du egin behar.

**▌Zein egoeratan dago liburutegia?**

▌ 16 urte ditu eta oso konponketa gutxi egin direnez ez dago egoera onean. Aste honetan bertan zorua eta gela bat margotuko ditugu txukunago jarteko asmoz. Konponketa gehiago egin beharko lirateke, baina momentuz konformatu egin behar. Momentu honetan ordenagailua jarteko obretan gabiltza. 2 urte ibili gara dauzkagun liburuen informazioa ordenagailura sartzen eta 7.000 bat honez gero sailkatu ditugu. Laster, jendeak, ordenagailu bidez egingo ditu kontsultak.

# Goienan sartzerakoan zer?

Bizitza erabakiz beteta dago, ez hil ala biziko erabakiak, ez behintzat gehienak, baina bai eguneroko lan jarduna bideratzen duten erabakiak: unibertsitatera ikastera joan edo lanean hasi, ezkondu edo elkarrekin bizi...

Loramendiko eta Aretxabaletako komunikabideakeko bazkideei ere erabakia hartzeko garaia heldu zaie, Goiena eskualdeko komunikabideen proiektuan sartu bai edo ez, hain zuzen. Iritzi hau kaleratzen denerako erabakia hartuta egongo da, ezustekorik sortzen ez bada behintzat, eta hartutako erabakiari aurre egin beharko zaio. Nahiz eta azkenengo hitza elkarteko bazkideek izan, Atxabalta telebistako eta Aretxagazetako langile eta batzorde kideek gaia behin eta berriz aztertu eta eztabaidatu ostean Goienan sartzearen aldeko apustua egin dugu. Ez da samurra izan erabakia hartzea eta oraindik ere geure kezkak ditugu, beraz zergatik baietza?

Goienak eskualdeko bederatzi herrietako komunikabide elkartea sortuko du, Goitebe telebista eta Goienkaria aldizkaria. Atxabalta telebistak, bere infraestruktura eta baliabideak ikusita momentu honetan ezin du zerbitzu hobea eskaini, beraz, Goienan sartzeak kalitate hobea, programazio zabalagoa eta eskualdeko berriak guregana hurbiltzea suposatuko luke. Aldizkariaren kasua ez daukagu hain garbi, batetik, oraindik gutxi landu delako proiektua eta bestetik, Aretxagazetak ondo funtzionatzen duela uste dugulako.



Goienan ez daude gu sartu begira eta proiektua gurekin edo gu gabe aurrera doa. Guk, ordea, geure ideia, proiektu eta iritziak ditugu Goienako lan taldean defendatu beharko ditugunak aurrera atera daitezen. Horretarako, langile eta batzorde kideei iritzia eman eta erabakiak hartzen laguntzeko lan talde indartsua beharko dugu atzean. Seguru nago, "esan nuen ba nik Goienan sartzeak ez ligukeela onik egingo..." edo "zalantza barik sartu egin behar ginen..." moduko esaldiak entzungo direla kalean, batez ere gauzak ez badira gura bezala ateratzen, baina seguru nago hau diotenek laguntzeko ere ez dutela gauza haundirik egin.

Atxabaltarrok geurea defendatu gura badugu, bildu eta talde indartsua sor dezagun, geurea geuk baino hobeto inork ez baitu defendatuko.

*Mirari ALTUBE*

PAGALDAI
Opari denda
Lurrindegia
Durana, 33 ☎ 943 79

BENGOA
URDAITEGIA
*Bertako okelak eta mortzilak*
Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

MAITE
ileapaindegia
Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

AREANO
nekazalturismo etxea
- Alojamendua
- Jangela zerbitzua
- Harrera hizkuntza desberdinetan
- Ikastaroak emateko tokia
Mendiola auzoa Tel.: 943 71 44 70
ESKORIATZA (sarrera Aretxabaletatik)



*Bilbon 1932an ospatutako aberri egunean milaka eta milaka jende batu zen*

# Aberri eguna Aretxabaletan



## Herrian dauden abertzaleak elkartu eta ekitaldi txukun bat egitea da helburua

Apirilaren 23an pazko domeka ospatzen da. Jende asko oporretan izango da Madrilen, Parisen edo Dublinen eta beste asko hurrengo egunean Mediterraneo aldera ateratzeko zain egongo da. Pazko domekan, bestalde, abertzaleek aberri eguna ospatzen dute. Batzuk etxean, beste batzuk oporlekuan eta beste hainbatek, ordea, alderdiek antolatutako tokietan ospatuko dute: EHkoek Iruñean, EAJkoek Bilbon, eta EAkoek Lizarran.

**Aberri egun bateratua**

Aurten, ostera, Aretxabaletan ere egingo da. Ez alderdi politiko batek antolatuta, ezta talde edo elkarte batek ere, atxabaltarrek antolatuta baizik. Aberri egun bateratua izango da alderdikeriarik gabe, interes politikorik gabe, hangoak eta hemengoak denak batera euskaldunari dagokion legez.

Ideia Lore Martinezek izan zuen. Kuadrilan komentatu eta oniritzia eman zioten. Ondoren herriko alderdi politiko eta taldeetara jo zuen eta denek baietza. Beraz, aurrera jotzea erabaki zuen eta aspaldian buruan zerabilen ideia edo ametsa egi bihurtzen saiatu da.

Jai hau, pertsona bakar batek antolatu beharrean atxabaltarrek eurak antolatu behar zutela pentsatu eta taldetxo bat osatzen saiatu zen Lore. Askok eman zioten baietza, baina agertu, oso gutxi agertu ziren. Hala eta guztiz aurrera jotzea erabaki zuten.

**Jende gutxi herrian**

"Bai, bai, oso ideia ona da eta gu ados gaude baina egun horretan ez gara herrian egongo". Azken egunotan sarritan entzun dute aberri egun hau antolatzen dabiltzan talde kideek esaldi hau. Beraz, ez da jende gehiegi egongo Aretxabaletan apirilaren 23an. Jende asko edo gutxitxoago egotea, berez, ez litzateke oso garrantzitsua izan behar, jaia berdin egin baitaiteke. Arazoa ekintzak antolatzean parte hartuko duen jendea falta bada sortzen da; bertsolari, trikitilari edo dantzariak esaterako.

"Horrelako zerbait antolatzen den lehenengo aldia da eta ez dugu izugarrizko jaia egiterik nahi, badakigu eta jende gutxi egongo dela" diote taldean. "Herrian dauden abertzale guztiek parte hartzea gurako genuke". Argi dago aberri eguna abertzaleen eguna dela, asmo horrekin sortu baitzuen Sabino Aranak 1932an, hala eta guztiz jaian parte hartu gura duen guztia hurbildu ahal izango da "ateak ez dizkiogu inori itxiko".

**Ekintza gutxi baina esanguratsuak**

Batetik, lehen aldia delako eta bestetik, jende gutxi egongo delako, ez dira ekintza ugari egingo. Eguerdi ingurua erabiliko dute horretarako, meza ondorena hain zuzen eta herrian dauden abertzaleak elkartu eta ekitaldi txukun bat egitea da helburua.

Abertzale eta orokorrean euskaldunontzat ikurrinak duen esanahi eta garrantzia jakinda, orain urte batzuk zegoen ohitura berreskuratu gura da, herriko balkoiak ikurrinez josita egotea. Meza ostean egingo den ekitaldirik garrantzitsuena ere ikurrinari agurra izango da. Udaletxean hartu eta udaletxe zaharreraino eramango da horreta-

rako. Han, txalaparta, dantzari, bertsolari eta abesbatzaren bitartez agurra egingo zaio. Udalbiltzak egun horretarako ateratako oharra ere irakurriko da eta hauxe izango da politika usaina izango duen ekintza bakarra. Euskaldunarentzat jatorduak duen garrantzia jakinda, ekitaldiari bukaera emateko bazkaria egingo da Matikuan.

**Aberri egun apolitikoa**

Egoera politikoa nahastuta dabilen egunotan aberri egun apolitikoa antolatzea ez da samurra izango, eta egia esanda aberri egun bati ezin zaio apolitikoa izatea eskatu. "Herri honetan politika elkarrengandik urrundu eta banatzeko erabiltzen da, horregatik aberri egun apolitikoa dela esan dugu. Apolitikoa hitza behar bada ez da egokiena, bateratua esan nahi dugu, herria bat bada ospakizuna bat izan behar da, denon artean egindakoa" dio Lore Martinezek taldearen izenean.

Abertzaleok bateratuta egingo bagenitu gauzak, geuk ere ez dakigu zelako indarra eukiko genukeen. Baina euskaldunok horrelakoxeak gara... Aurtengoa herrian egingo den lehenengo aberri egun bateratua izango da, ez ordea azkena. Antolatutako ekintzek baino jendearen parte hartzeak eta berotasunak du garrantzi haundiagoa. Abertzale guztiak batera ikurriñaren inguruan. Abertzaleak batera burujabetasuna eske. Abertzaleak batera aberri egunean.

## Aberri eguna 2000

Egitaraua

| | |
|---|---|
| 9,00 | Ikurriñak jartzea balkoietan |
| 11,00 | Etxaflero jaurtiketa |
| 11,45 | Txalaparta |
| 12,00 | Meza nagusia |
| 13,00 | Txalaparta |
| 13,10 | Udaletxetik ikurriñaren irteera eta trikiti lariekin kalejira udaletxe zaharreraino |
| 13,20 | Ikurriñari agurra |
| 13,30 | Ikurriña balkoian jarri eta Udalbiltzaren komunikatua irakurri |
| 14,30 | Bazkaria Matikuan |
| | Izena Arlutzen eman daiteke eguena baino lehen |

Oharra: eguerdiko ordu batetatik ordu bietara bitartean euskal nortasun agiria egiteko aukera egongo da.

## Lehenengo aberri eguna gogoratuz...

Lehenengo aberri eguna 1932ko martxoaren 27an, berpizkunde domekan ospatu zen Bilbon. Jaunak heriotza garaitu zuen eguna zen eta Euskal Herriaren garaipen egunarekin batzea gura izan zuten.

Sabino Arana izan zen "Euzkadi euskaldunen aberria da" aldarrikatu zuen lehenengoa eta hain zuzen hitz hauek oinarri hartuta bere anaia Luis Aranak antolatu zuen 1932ko aberri eguna. Ordurako Sabino hilda zegoen.

Umeak, gazteak eta gizon-emakumeak, adin eta lanbide guztietako abertzaleak elkartu ziren 1932. urteko pazko domekan Bilbon. 65.000 euskaldun baino gehiago tren, autobus eta kotxez joanak, baita Aretxabaletatik ere. Arrantzaleak euren itsasontzietan hurreratu ziren Bilboko portura. Aurreko gauean, mendigoizaleek Euskal Herriko hainbat menditan, tartean Kurtzebarri, sua ixotu zuten.




Goizeko 8etatik hasita, ikurriñak eskuan hartuta milaka lagunek Bilboko kaleak bete zituzten. Tartean lau probintzietako buru batzarrak, diputatuak eta beste hainbat agintari zeuden. Isilean eta poza ezin gordeta egin zuten manifestaldia, inolako istilurik izan gabe. Jaia, ordea, ez zen pazko domekan bukatu, hurrengo egunean jarraitu zuen. Dantzak, kantuak, pilota partiduak, omenaldiak, hitzaldiak... Euskal Herria goraipatu zen bi egunetan zehar.

Hurrengo urteko aberri eguna Donostian ospatu zen, 1934koa, berriz, Gasteizen eta 1935ekoa Iruñean. 1936an, gerra zibilaren hasiera zela eta ez zen egin. 1964an berreskuratu zen jaia, Gernikan. 1981an, berriz, aberri eguna alderdi eguna bihurtu eta alderdiak bakoitza bere aldetik ospatzen hasi ziren.



## Korrika

**Otala zelaiko krossa maiatzaren 7an.** Urkuluk korrikalari ugari batuko ditu datorren maiatzaren 7an. Goizeko 10etatik aurrera gaztetxoen karrerak izango ditugu, eta ondoren, 11etan proba nagusia hasiko da. Partaideek goizeko 9:30etatik 10:30etara bitartean izena eman beharko dute urtegian bertan. Urtero moduan gizonezkoak, junior, senior eta beteranotan banatuko dira eta emakumeena maila bakarra egongo da.



## Pala

**Elgoibartarrak nagusi pala txapelketan.** Martin eta Oier Urigoitia bikote elgoibartarrak irabazi zuen joan den domekan pala txapelketa. Bigarren Acero-Muruamendiaraz bikote bergararra gelditu zen, eta hirugarren Alberdi-Agirrebeña bikotea, hauek ere bergararrak. Lehen atxabaltarrak Edorta Antxia eta Gorka Madinabeitia izan genituen. Azken hauek laugarren gelditu ziren final aurrekoa galdu ostean.



## Futbola

**Euskal ligako jubenilek partidu bakarra falta bukatzeko.** Udako Euskal Ligako infantilek datorren apirilaren 30ean bukatuko dute liga. Azken aurreko partiduan, 3-2 Elgoibarren aurka irabazi ondoren, taldea 8. postuan dago sailkapen orokorrean. Azken partiduan, bArriz, Anaitasunaren aurka neurtuko ditu indarrak Jesus Arregik entrenatzen duen taldeak. Azken partidu hau, esan denez, apirilaren 30ean kanpoan jokatuko dute.



## Mendia

**Mendi martxa antolatuko da ekainerako.** Ekainaren 11rako mendi martxa antolatu dute herriko martxa zale batzuek Murrukixo mendi elkartearekin batera. Sei-zortzi ordu bitarteko ibilaldia izango da eta partehartzaileek herritik hasi eta Oro, Larrino, Urrexola, Degurixa, Leixargarate eta Kurtzebarritik pasa ondoren, herrian bertan amaituko dute martxa. Guztira 28 km izango ditu lehen martxa horrek.

# Mirian Santateresa

## Karate ikaslea

***Mirian Santateresak hamalau urte ditu eta karatea praktikatzen du kiroletxean. Orain urte eta erdi animatu zen Odilo Vazquez karate maixuaz arte martzial hau ikastera. Geroztik jo ta ke karateak gordetzen dituen, teknika, hiztegi eta modalitateak ikasten dihardu.***

**▌Zergatik hasi zinen karatean?**

▌Iragarki baten bitartez kiroletxean karateko klaseak ematen zirela jakin nuen. Kirol berria zen niretzat baina polita iruditzen zitzaidan. Momentu hartan kirol bat praktikatzea nahi nuen, eta aukera aprobetxatuz karatean hasi nintzen.

**▌Eta geroztik gustura?**

▌Bai, oso pozik. Ez da ohiko kirola, ekialdeko arte martzial bat baizik, eta hortaz, desberdina da. Hala ere, oso erakargarria dela esango nuke.

**▌Gerrikoaren koloreak garrantzia du arte martzial horretan. Zuk zeuk zein daukazu?**

▌Orain gerriko horia daukat baina ekainerako naranja izatea espero dut. Hasi berriek txuria janzten dute. Gero horia, naranja, berdea, marroia, eta azkenik, beltza daude.

**▌Ze maila erakusten du gerriko hori horrek?**

▌Hasierako maila da, eta beraz, ez da horren zaila. Dena dela, kontuan izan behar da karatean hasieratik dena berria dela. Kirola bera berria izateaz gain, hiztegia ere ikasi beharra dago, eta hasieran dexente kostatzen da dena buruan sartzea.

**▌Kontaiguzu entrenamendu batean zer egiten duzuen.**

▌Hasieran beste kirol batzuetan bezala, fisikoa lantzen dugu, korrika, abdominalak... eginez. Gero karateko teknikak jorratzen ditugu, eta horrekin batera katak eta kumitea ere bai.

**▌Bi berba berri aipatu dituzu, kata eta kumite, esplikaiguzu zer diren.**

▌Zaila da esplikatzea. Katak karateko teknikak dira baina hauek bata bestearen jarraian egiten direnean lotura bat sortzen da eta horiek dira katak. Kumiteak, berriz, borroka kutsu gehiago du. Beste pertsona batekin borrokatzeko orduan erabiltzen da. Hala ere, maixuak beti esan izan digu karatea ez dela jotzeko defendatzeko baino.

**▌Entrenamenduez gain, bestelako ekintzarik egin duzue?**

▌Bai, urte hasieran karate erakusketa bat egin genuen. Horrez gain, oraintsu Oñatiko txapelketa batean hartu dugu parte, kata modalitatean, hain zuzen.

**▌Zer da karatea arte martziala, kirola ala norbere burua defenditzeko artea?**

▌Niretzat kirola da eta baita arte martziala ere.

**▌Noraino iritsi nahi duzu?**

▌Zinturoi beltza izatera iritsi nahi nuke, baina horretarako denbora eta dedikazioa behar da. Urteak beharko dira aipatutako helburura lortzeko, baina ahal dudan neurrian jarraitzeko asmoa daukat.



# Kemen taldea nagusi Arlutzeko futbitoan

Kemen taldeak irabazi zuen joan den domekan Arlutz futbito txapelketa. Finala Kemen eta Toblerone taldeek jokatu zuten eta 7-2 emaitzaz nagusitu ziren aurrenak. Golez betetako partidua izan zen, eta Arlutzen bildu zen ikuslegoak partidu politaz gozatzeko aukera izan zuen, duda barik.

Final aurrekoak, barriz, zapatuan jokatu ziren. Alde batetik, Kemen DDK taldeak aritu ziren. Kemenek 2-1eko emaitzaz irabazi zuen. Bestetik, Hugo eta Toblerone taldeek bana berdindu zuten. Horren ondoren, aurrez aipatutako finala baino ez zen jokatu.



*Kemen taldea, Arlutz futbito txapelketako irabazlea*




## Esku pilota eta squash txapelketak

Maiatza eta ekainean esku pilota eta squash txapelketak jokatuko dira kiroletxean. Esku pilota maiatzaren 13tik ekainaren 24ra izango da. Squash txapelketako data, berriz, zehazteko dago oraindik, dena dela, bi txapelketetan izena emateko azken epea maiatzaren 5ean amaituko da.

Gogoratu, bestalde, kiroletxeak telefono zenbakia aldatu duela, telefono zenbaki berria 943 71 26 28 da.



## ERRASTI ANAIAK DEBA ARROKO FINAL AURREKOETAN

Ibon eta Unai Errasti bikoteak Deba Arroa txapelketako final aurrekoa jokatu zuen joan den asteko eguaztenean Soraluzeko Heriz-Laskurainen aurka. Atxabaltarrak 22-21 irabazi zuten partidua baina aurrera joan ahal izateko bueltako partidua ere irabazi beharra daukate. Azken hau gaur bertan, hilak 19, jokatuko da Soraluzen gaueko 10etan. Partidu hau irabaziz gero, bikotea finala jokatzeko sailkatuko litzateke.

Finala, bestalde, maiatzaren 1ean ospatuko da Oñatin. Beraz, gure zorterik onena bi anaiei eta ea finala jokatzera iristen diren. Gogoratu, bestalde, txapelketa hau bukatu bezain laster herri arteko torneoa hasiko dela.

Lasai
Mirian Manteca
MASAJISTA
Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta egokitzean
diplomatua
Tel.: 943 77 04 34

IRIARTE
Umeen denda eta lentzeria
Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96

Aldi bi

# Iragarkiak

**Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira.**
**Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik.**
**Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.**

**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

## Denetik

Solarium-a salgai. Prezioa: 45.000 pta. Goizez deitu 943 79 68 63 telefono zenbakira.

---

Motorra erosiko nuke. Tel.: 943 77 09 52 (Paul).

---

Bi salmahai eta apalategi metalikoak salgai. Tel.: 666957983.

---

Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa beharko nuke. Tel.: 943 77 08 02. (Joxean).

---

Opel Astra GSI 115 cv salgai. 1993. urtekoa. Txuria. Tel.: 943 77 09 23. (Roberto).

---

Piragua salgai. Whip, it. Arraunekin, "cubrebañera" eta bi globorekin. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

---

Opel Kadet GSI 2000 16 v salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 75 11/79 98 08 (Mikel).

---

Kotxea salgai Renault 21 TXE. Egoera onean. Tel.: 943 79 68 63.

---

Zaldia baldin baduzu eta nirea zaintzeko prest bazaude, tratu batera hel gaitezke. Tel.: 943 79 21 86. (Jonegatik galdetu).

---

Gaixotasun arazoengatik negozioaz ezin garelako arduratu, martxan dagoen denda alokatzen da Aretxabaletan. Tel.: 626379326.

---

Bigarren eskuko ordenagailu portatila erosiko nuke. Tel.: 943 79 77 85.

---

Txahalak salgai kongeladoran sartzeko. Labeldunak eta natural hasitakoak. Bildotsak ere bai. Tel.: 689541861.

---

Peugeot 806a salgai. 7 plazatakoa. 2.0 gasolina. Tel.:607 15 30 70.

## Etxebizitza

57 m$^2$ko garajea salgai edo alokagai Errekabarren kalean. Tel.: 943 79 74 73.

---

Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tel. 649 16 86 69.

---

Pertsona batek Aretxabaletan pisu bat konpartitzeko beste pertsona bat behar du. Egunez deitu: 943 74 80 00 telefonora eta gauez 943 77 18 72 telefonora.

---

Logela bat alokatzen da, pisu konpartitu batean Arrasaten. Tel.: 943 79 23 96.

---

Etxe bat alokatuko genuke Aretxabaletan edo Arrasaten. Tel.: 646699843.

---

Garajea salgai/alokagai Murubiden. Tel.: 639418106. (Ilunkaran deitu).

---

Garajea alokagai Santa Kurtz kalean 24. zenbakian. Tel.: 943 79 16 24.

---

Herriko plazan lokal bat saldu edo alokatzen da. Tel.: 943 79 77 30. Egoera onean.

---

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.
ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK
Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA
Zuzendaria: Lyonel Arquero
Dekorazioa: Soraya Arquero

BEIRALAN
KRISTALDEGIA
✧ Komunerako altzari eta manparak
✧ Ispiludun armairu aurrealdeak
✧ Beirate artistikoak
✧ Salarako mahaiak
Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

## Lana

Mutil bat behar dugu Ford Transit furgoneta gidatzeko. Tel.: 943 79 83 04.

---

Ludotekarako pertsona bat hartu nahi da. Bialdu c.v.a Loramendi elkartera, Durana, 11 helbidera, maiatzaren 5a baino lehen.

---

Astebukaeretarako zerbitzaria behar da Mendiola jatetxerako. Tel.: 943 71 43 45.

---

Enpresa zientzietan lizentziatua lan egiteko prest. Tel.: 943 79 89 92.

## Lan deialdi publikoak

Aretxabaletako Udala. Kontuhartzailetzako teknikaria. Enpresa zientzietako diplomatura. Lanpostu finkoa da. Oinarriak: GAOn argitaratu zain. Epea: BOEn argitaratu eta 20 egunetako epean.

Azkoitiako Udala. Udaltzaina. Epea: BOEn argitaratzeko zain.
Eibarko Udala. Administrari laguntzailea. BOEn argitaratzeko zain.

---

Bizkaiko Foru Aldundia. Suhiltzaile gidaria. Epea: BOEn argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean.

---

Iruñeko Udala. Liburuzain laguntzailea. Epea: BOEn argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean.

---

Sanguesako Udala. Ingeniari teknikoa. Epea: Apirilak 19.

---

Zubieta eta Iturengo Udala. Administrari laguntzailea. Epea: apirilak 22.

---

Ziordiako Udala. Garbitzailea. Epea: Apirilak 22.
Bilboko Udala.

---

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

**TXAPISTA.** Durangaldea.
Erref.: 30317/2

**KOMERTZIALA.** Gasteiz.
Erref.: 30946/4

**PROGRAMATZAILEA.** Arabako lautada.
Erref.: 30815/2

**ELEKTRIZISTA.** Arabako lautada.
Erref.: 30646/2

**GIDARIA.** Deba Goiena.
Erref.: 327274/9

**PRODUKZIO ARDURADUNA.** Deba Behea.
Erref.: 29771/2

**URBANIZAZIO MANTENIMENDURAKO ARDURADUNA.** Durangaldea.
Erref.: 30277/1

**KOMERTZIAL TEKNIKOA.** Gipuzkoa.
Erref.: 31066/2

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero,ondorengo telefonoetara dei daiteke:
Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33
Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90
Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

OLABEN
· BILTEGI HOZKAILUA
· HARAGI PRODUKTOAK
· INDIOILARRA ZATITUTA
· UNTXIAK
· TXERRIKIAK
· IZOZTUAK
· BASERRIKO OILASKOAK
Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

ARETXABALETA
ITURGINTZA
Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Lie
Lurrindegia
Opari-denda
Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK
RKU
URKULU, S.L.
Mitarte, 23
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Etxabe
harategia
Durana 4
☎ 943 79 16 61

PIENSOS UNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea
Angelines
AUTOZERBITZUA
Mitarte, 16 • 943 79 61 42

# TABERNA ETA JATETXEEN GIDA

## Zaraia taberna

MANTEKA ANAIAK

*Goizeko 5,30etatik zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 85 57

## Izotz taberna

*Zure gustoko giroa*

IZOTZ TABERNA

Mitarte, 16 • 943 79 73 65

## Gurea taberna

Jatetxea eta taberna

GUREA

*Eguneko menuak*

Durana kalea • 943 79 20 64

## Lauxitta taberna



**Pintxoetan espezialitatea**

Lauxitta, 4
943 79 29 36

## Arlutz taberna

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

*Gustoko musika*

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

## Ezkutu taberna

EZKUTU
TABERNA

Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA

• *Parrila espezialitatea*

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 943 79 68 57

## Mendiola erretegia

ESKORIATZA
Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

*Bazkariak eta afariak*

*Astelehenetan itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Bazter alde jatetxea



**Sasoiko jakiak giro onenean**

Galartza auzoa
© 943 79 24 58
ARETXABALETA

## Mitartegarai

*Mitartegarai Jatetxea*

Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51



## Artano taberna

Herriko plazan

ARTANO

*Girorik onena*

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

## Josu harategia/taberna

*Josu harategia-taberna*

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08



## Taberna Berri

Taberna Berri
jatetxea



Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67

## Urbaltz taberna

URBALTZ
taberna

URBALTZ
TABERNA

**Mitarte, 21 behea**
**Tfnoa.: 79 79 79**
**ARETXABALETA**



# Opor, ospakizun erlijioso eta Aberri eguna

Bihar bertan hasiko dugu Aste Santua, ohi bezala Eguen Santuan. Aretxagazetak egun horretan irten beharko zukeen, baina jai eguna denez, egun bat lehenago kaleratu da. Larri samar ibili naiz txutxumutxuak jakiteko. Eskerrak gure herriak ematen duen zer kontatu.

Kirolak, adibidez, beti sortzen du berririk. Orain bi aste esaterako Dorletako Ama txirrindulari taldeko infantilek Aretxabaletan korritu zuten. **Jon Lete** taldekidea bigarren gelditu zen. Lan polita egiten dabil mendiolarra denboraldian.

Literaturan eta marrazkigintzan ere ez gara atzean gelditu. XIII. Arrasateko literatura lehiaketan atxabaltar ugari izan dira sarituak. Poesian 14 urtetik beherakoetan **Aiora Padilla**k saria eraman zuen, baita komikian **Oscar Rebanal**ek ere. Azken modalitate horretan, 17 urtetik gorakoetan **Mikel Arroiabe**k eraman zuen beste sari bat. Duda barik, esku bikaina du gure kolaboratzaileak. Eta azkenik, beste modalitate batean, irrati erreportajean hain zuzen, **Miren Igartua** eta bere taldekideak izan ziren sarituak. Txalo bat eta zorionak laurontzat.

Eibarretik ere notizi fresko-freskoak datoz. Domekan Arratera igoera izan zen eta bertan bi atxabaltar aritu ziren: **Iker Bengoa** eta **Juan Carlos Fernandez**. Kotxeari zarata eta kea atera zioten behintzat.

Kontuak kontu nik neure lanarekin jarraitzen dut. Eta pixkat filosofeatzen hasita... Aurre-aurrean dugun Aste Santuak hiru gauza dakarzkit burura: ospakizun erlijiosoak, oporrak eta Aberri eguna. Egia esan, gaurko kultura berria egun hauetan etxetik kanpo alde egitea da, eta atxabaltar gehientsuenek horixe egingo dute.

Dena dela, hemen gelditzen denak zer egin izango du. Alde batetik, urtero moduan ospakizun erlijioso ugari izango dugu, eta bestetik, berrikuntza moduan, aurten Aberri eguna ospatuko da herrian bertan. Taldetxo bat hor dabil fin-fin lanean egun hori antolatzen. Herrian jende gutxi geldituko den arren, eurak animatuta daude eta hori da garrantzitsuena. Aurrera ba eta animo! Niri behintzat oso ideia polita iruditzen zait. Alderdi egun bateratua, abertzale guztiok batera egongo garen eguna.



LIBURUTEGIKO TXOKOA




## Zaudete geldi pixka batean

**Andoni Egaña**
**Marrazkilaria: Antton Olariaga**
**Elkarlanean, 1999.**
**(Xaguxar, 100)**

Argazkilari profesional batek ikastolako Andereñoaren omenez eginiko afari batean andereñoaren argazki bat gordetzen du beretzat eta ondoren argazkiari begira dagolarik bertan agertzen diren haurrei buruzko pasadizoak ekartzen ditu gogora. Kapitulu bakoitzeko pertsonaia baten pasadizoak kontatzen ditu, eta gero, gaur egun zer egiten duen azaltzen du.
Bere oroitzapenok askotan barregarriak dira, ironikoak eta maitasunez beteak gehienetan.
Xagusar sailaren 100. zenbakia osatzen du Egañak gazteendako literaturan egin duen lan horrek, eta argazkia oso polita atera zaiola esango nuke, istorio oso interesgarriak bildu baititu.
12 urtetik aurrera irakurtzeko liburu aproposa duzue hau. Olariagaren marrazkiak ere, bere ohiko estiloan, oso aproposak dira.

Joseba Lopez de Armentia

## EUSKARA ZUZENTZEN

Gaurkoan gure ahotan barra-barra dabilen esaldia ekarri dugu euskara zuzentzen atalera.
Adibidea honako hau da:
Oker:
- Eztakitx Aste Santuan ze ein.
- Madrilera fan ~~laiketzu~~, prezio merke-merkiek daz eta.

Zuzen:
- Eztakitx Aste Santuan ze ein.
- Madrilera fan zeike, prezio merke-merkiek daz eta.



## APIRILA

### 19, 20, 21, 22, 23

**ASTE SANTUKO OSPAKIZUNAK**

Egun hauetan zehar Aste Santuko ospakizunak egingo dira.

### 20, 21, 22, 23, 24

**UIZIRA IRTEERA**

Zaraia mendi taldeak Uizira irteera egingo du. Egunero mendi irteera egingo dira eguraldiak laguntzen badu behintzat.

### 20, 21, 22

**GAZTE TOPAGUNEA 2000 KANBON**

Gazte topagunea egingo da Kanbo herrian Jarraik antolatuta.

### 23 DOMEKA

**ABERRI EGUNA ARETXABALETAN**

Aberri eguna ospatuko da Aretxabaletan. Hainbat ekintza egongo dira egunean zehar.

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Arlaban-Legutiano-Otxandiano-Zubizabal-Ubidea-Gopegi-Landa. 77 km.

### 30 DOMEKA

**ZIKLOTURISTEN IRTEERA**

Aretxabaleta-Arlaban-Landa-Ozaeta-Narbaxa-Agurain-Narbaxa-Ozaeta-Landa-Aretxabaleta. 80 km.

## MAIATZA

### 2-7

**ZABORRETATIK ATERATAKO JOSTAILUEN ERAKUSKETA**

Mankomunitateak antolatuta eta zaborraren problematika aztertzen programaren barruan, udaletxe zaharrean erakusketa egongo da. Ordutegia astegunean 17:00etatik 20:00etara eta astebukaeran 12:etatik 14:30era eta 18:00tik 20:00ra.

### 7 domeka

**MENDI IRTEERA**

Zaraia mendi taldeak Lizarruzti-Illarrazu mendi martxa egingo du.

**OTALA ZELAIKO KROSSA**

Otala zelaiko krossa egingo da Urkuluko urtegian goizeko 11etatik aurrera.



## IKASTAROAK

**EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA IKASTAROA**

Arrasateko Wing Tsun taldeak emakumeentzako autodefentsa ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 6tik 27ra emango da, Arrasateko Beti Ona gimnasioan. Izen ematea 610 90 26 30 edo eta 943 77 00 67 telefono zenbakietan egin daiteke.

## LEHIAKETAK

**I. TORNOZULO BERTSO PAPER LEHIAKETA**

Donostiako Arrano Beltza Euskal Tokiak bertso paper lehiaketa antolatu du. Epea: Apirilaren 23a. Helbidea: Arrano beltza euskal txokoa/Ikatz kalea, 10 behea /20003 Donostia.

## BESTELAKOAK

**NAZIOARTEKO ATERPEKIDE, GAZTE, IKASLE EDO IRAKASLE AGIRIA**

Bergarako gazte informazio guneak nazioarteko ikasle, irakasle eta gazte txartela ateratzeko aukera eskaintzen du. Ordutegia: eguen eta eguakotxetan 16:00tik 20:00ra. Zapatuetan 9:30etatik 13:30etara. Tel.: 943 77 91 57.




*Mikel Arroiabe*

## Zorion agurrak



**Markel Uriarte 9 urte**
Apirilak 14
Aitatxo, amatxo, amama, aitita eta Nagoren partetik.



**Katalin Antxia**
Apirilak 17
"Ale bikaina, lore urdina txingi aratza osto liraina".



**Paulo Antxia**
Apirilak 17
Zorionak tio Paulo.
Martin, Katalin, Xabier eta Julen.



**Amagoia Lasagabaster**
Apirilak 19
Aupa neska eta zorionak! Zure lankideak.



**Ainara Uralde**
Apirilak 20
Zorionak Peñikaren partez.



**Miren Nekane Castellano**
Apirilak 24
Zorionak maite zaitugun guztion partetik. Familiakoak.



**Ana Mari Aretxaga**
Apirilak 24
Zorionak amama.
Markel eta etxekoak.



**Iraia Arabaolaza**
Apirilak 25
Italiaraino zorionak Peñikaren partez.



**Montse Velasco**
Apirilak 27
Zorionak Donostian dagoen Montseri. Familiakoak.



**Pauli Guridi**
Apirilak 27
"Bihotzean zaitugu, beti zara atsegin"
Zorionak. Martin eta Katalin.



**Martzelina Bengoa**
Apirilak 28
Nagore, Markel, Santiago, Jabier eta Gurutze



**Ainhoa Barandiaran**
Apirilak 30
Zorionak Peñikaren partez.



**Santiago Uriarte**
Maiatzak 1
Nagore, Markel, Martzelina, Jabier eta Gurutze.



**Gaizka Agirre**
Maiatzak 2
(3 urte)
Zorionak etxeko gaztetxoenari. Etxekoak.

## Txistuak • Txaloak

Domeketan ogia eta egunkaria erostera irteten dugunean, ezin dugu lo irten, izan ere, astebukaeran gertatu diren gertaerez ez baikara konturatuko. Gau eroaren ondorioak haserrerazi egiten gaituzte, baina ez ostera, harritzen: kotxeetako ispiluak apurtuta, ONCEko kabina eta telefonoenak apurtuta, BBVa erreta, papel kontenedorea erreta...

Domekan Gipuzkoako kutxako kristala apurtu zuten. Norbaitek inongo arrazoirik eta esplikaziorik ez duen ekintza egiteko gai zela erakutsi zion bere lagunari. Arrazoirik ez izateaz gain, ekintza hauek egin dituenak txistu itzela merezi duela uste dut. Besterik ez.



## Jaiotakoak

**Josune Blanco Urbano**
Apirilaren 11n.

**Josu Dominguez Gutierrez**
Apirilaren 14an.

**Lierni Castilla Miguel**
Apirilaren 15ean.

## Hildakoak

**Carmen Larrañaga Zubia.**
Apirilaren 10ean.
87 urte.

| Aretxabaleta | |
|---|---|
| • Almen | 943 71 49 07 |
| • Aretxagazeta | 943 79 86 21 |
| • Telebista | 943 79 86 21 |
| • Basotxo | 943 77 09 81 |
| • Euskaltegia | 943 79 21 68 |
| • Gizarte-Laguntzailea | 943 79 10 00 |
| • Hezibide Elkartea | 934 79 31 32 |
| • Industrialdea | 943 79 62 80 |
| • Institutua | 943 79 79 00 |
| • Kiroletxea | 943 71 26 28 |
| • Kultur-Etxea | 943 79 01 05 |
| • Kurtzebarri Eskola | 943 79 00 49 |
| • Kurtzebarri B.H.I. | 943 79 57 40 |
| • Liburutegia | 943 79 10 00 |
| • Loramendi E.E. | 943 77 09 70 |
| • Ludoteka | 943 79 05 81 |
| • Mankomunitatea | 943 79 30 90 |
| • Murrukixo M.E. | 943 79 93 74 |
| • Musika Eskola | 943 79 36 50 |
| • Ortzadar | 943 79 01 84 |
| • Osasun zentroa | 943 79 74 58 |
| • Otalora | 943 71 24 06 |
| • Parrokia (Bulegoa) | 943 79 18 42 |
| • Pausoka Haur-Esk. | 943 77 03 77 |
| • Postetxea | 943 79 28 31 |
| • Santa Rita Ikast. | 943 79 17 00 |
| • Saretxo | 943 71 26 56 |
| • Taxi Geltokia | 943 79 22 33 |
| • Udal Bulegoak | 943 79 10 00 |
| • Udaltzaingoa | 943 79 10 52 |
| • Urats Gain | 943 79 99 11 |
| **Udaltzaingoa** | |
| • Arrasate | 943 79 14 39 |
| • Bergara | 943 77 91 06 |
| • Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| • Oñati | 943 78 04 11 |
| **Larrialdiak** | |
| • SOS Deiak | 112 |
| • Eskualde-Ospitalea | 943 03 53 00 |
| • Ertzaintza | 943 79 71 99 |
| • Gurutze-Gorria | 943 76 55 76 |
| • Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| • Suhiltzaileak (Oñati) | 943 78 28 00 |
| **Garraioak** | |
| • Pesa | 902 10 12 10 |
| • Renfe (Gasteiz) | 945 23 02 02 |
| • Renfe (Zumarraga) | 943 72 15 15 |

## Atxabalta telebista

| | martizena | eguakotxa |
|---|---|---|
| 20:00 | ALBISTEAK/Agenda<br>Argazki-zaharrak<br>Kirolak | ALBISTEAK/Agenda<br>Eguraldia |
| 20:30 / 21:00 | Albiste errepikapena | Albiste errepikapena |



# Urrezko ezteiak

Pablo Arana Zubia eta Cecilia Barandiaran Zaldibarrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte aurten. Bikotea 1950. urteko apirilaren 29an ezkondu zen Eskoriatzako San Pedro elizan. Pablok 28 urte zituen orduan eta Ceciliak, berriz, 24 urte.

Ezkon bidaia Bilbora egin zuten. Ceciliaren familiartekoak bisitatu zituzten bertan, eta horrekin batera, hainbat irteera ere egin zituzten.

Hiru seme-alaba izan dituzte Pablo eta Ceciliak: Iñaki, Jon eta Gurutze. Gaur egun lau iloba ere badituzte: Itsaso, Amaia, Mikel eta Nerea.

Berrogeita hamar urte ez dira edozela pasatzen, beraz, zorionik beroenak bikoteari eta jarraitu aurrera orain bezain osasuntsu eta zoriontsu.

*Argazkia: Gurutze Arana*
*Informazioa: Gurutze Arana*

LASAGABASTER

LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Arrasate-Aretxabaleta Institutua

# Etorkizuna zure esku



## Ematen ditugun motak

- Natur eta Osasun-Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Teknologikoa.

## Bide irekiak

- Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak ditugu.

## Hizkuntzak

- Ingelesa.
- Frantsesa.

## Modalitate eta Aukerakoetan eskaintza zabala



- Laborategi teknikak.
- Elektroteknia.
- Mekanika.
- Psikologia.
- Antropologia.
- Ekonomia eta enpresa antolaketa.
- Iharduera fisiko, aisialdi eta osasuna.
- Ordenagailu bidezko marrazketa eta diseinua.

## Erdi Mailako Zikloak



- Ibilgailuen elektromekanika.
- Erizaintzako zaintza osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mekanizazioa.
- Kontsumorako ekipo elektronikoak.

## Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produkzioa.

**Aurre-Inskripzioa eta Matrikula**

AURRE-INSKRIPZIOA

| | |
|---|---|
| Batxilergoa | Maiatzaren 2tik 12ra |
| Heziketa Zikloak | Ekainaren 1etik 12ra |

MATRIKULA

| | |
|---|---|
| Batxilergoa | Uztailaren 3tik 10era |
| Heziketa Zikloak | Uztailaren 3tik 7ra |

arrasate aretxabaleta INSTITUTUA

Berri gehiagorako:

ARRASATE / Sta.Teresa, 25 • Tel.: 943 79 44 47 / 79 83 00 /

ARETXABALETA / Etxebarri auzoa, z/g • Tel.: 943 79 79 00 / 79 79 43 /

Orain

TDdi berria

75 CV




Maiatzeko eskaintza berezia

13i (3 ate) 1.224.000 pezetatik aurrera

* kanpainak eta prever plana barne

DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

MUGARRI

Araba etorbidea, z/g • ARR
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79